

Bertsolaritzari buruzko doktorego-tesia egiteko 2016an zabalduriko deialdiaren ebazpenari dagokion aktaren oharra

Bertsolaritzaren prosodia lanarekin lortutako sariari uko egin dio Ainhoa Aizpuruak Laboa Katedraren beste sari bat lortu duelako.

Honenbestez, zerrendako hurrengo hautagaiak eskuratu du kontratua: Eñaut Agirrek *Ahozko hizkeraren ezaugarriak bertsolarien bat-bateko jardunen* lanarekin.

Era berean, Oihana Iguaranek ere uko egin dio *Bertsoaren Agenda*. "*Agenda setting*"ak *bertsolaritzaren diskurtsoan duen eragina* lana garatzeko erdietsitako kontratuari, Eusko Jaurlaritzak esleitutako beste bat ere eskuratu duelako lan bera osatzeko.

Beraz, zerrendan hurrengo den hautagaiari esleitu zaio saria: Jon Martini egokitu zaio *Xabier Leteren bertso, olerki eta kanten analisisa* lana gauzatzeko.